



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2015EKO URRIAREN 29AN EGINIKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesús Peñagarikano Labaka
Arkaitz Fraile Quijera
Hanot Karrera Amondarain
Irati Ozaita Azpiroz
Juan Luis Cid Conde
Eleuterio Sanchez Garcia

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, bi mila eta hamabosteko urriaren hogeita bederatzian arratsaldeko zazpitan udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- 2015eko irailaren 24an egindako ohiko udalbatza bilkuraren aktaren onarpena.
- 2.- 284/2015tik 326/2015ra alkate dekretuak jakinaraztea
- 3.- 5/2015 Kreditu gehigarriaren aldaketaren onarpena
- 4.- 2016 urterako udal zerga eta tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketa
- 5.- Udalbitza Partzuergoan sartzeko proposamena
- 6.- BILDUK aurkeztutako mozioa Mendebaldeko Sahararen ingurukoa
- 7.- BILDUK aurkeztutako mozioa Azaroaren 25eko Adierazpen Instituzionalaren ingurukoa
- 8.- EAJ taldeak aurkeztutako mozioa Azaroaren 25eko Adierazpen Instituzionalaren ingurukoa
- 9.- Galde-erreguak

LEHENENGOA:

2015EKO IRAILAREN 24AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Irakurri da 2015eko irailaren 24ko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (6 BILDU eta 2 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2015eko irailaren 24ko ohiko bilkurako akta.

BIGARRENA:

284/2015TIK 326/2015RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2015eko irailaren 24tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 284/2015tik 326/2015ra.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

HIRUGARRENA:

5/2015 KREDITU GEHIGARRIAREN ALDAKETAREN ONARPENA

5/2015 kreditu aldaketaren espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien bidez eta udal honen aurrekontuari eragiten diona.

Kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da. Horren arabera, espedienteak dagokion araudia betetzen du, zehazki, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27 artikuluan ezarritako eskakizun eta izapideak.

Kontuan izanda Gipuzkoako Tokiko Erakundeetako Zergei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31 eta 34.3 art. eta Aurrekontua gauzatzeko Udal Araudiaren 4 atalaren 5.b art.

Ikusi dira Ogasun eta Kontuen batzordearen 2015eko urriaren 26koa aldeko txostena eta onarpen proposamena.

Udalbatzak, aho-batez,8 aldeko botorekin (6 BILDU eta 2 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea 5/2015 Kreditu aldaketa espedientea, kreditu gehigarrien bidez, eta udal honi dagokion aurrekontuari dagokiona. Ondoren zehazten da atalka:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

KREDITU GEHIKUNTZA

ATALA	IZENDAPENA	
GEHIKUNTZA		
2.-	Gastu arruntak	109.925,00
4.-	Transferentzi arruntak	3.600,00
6.-	Benetako inbertsioak	116.716,00
GUZTIRA GEHIKUNTZAK.....		230.241,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

A) AUREKONTU KREDITUEN BAJAK

ATALA	IZENDAPENA	
MURRIZKETA		
2.-	Gastu arruntak	16.800,00
6.-	Benetako inbertsioak	15.700,00
GUZTIRA MURRIZKETAK.....		32.500,00 €

B) DIRUZAINITZA GERAKINA

ATALAK	IZENDAPENA	
Zenbatekoa		
8.-	Diruzaintza gerakina	197.741,00
GUZTIRA		197.741,00 €

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu orokorrari ematen zaion izapidetzea emango zaio.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENA
2016 URTERAKO UDAL ZERGA ETA TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA
FISKALAREN ALDAKETA

2016 urteko Udal tasak eta zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena egin du gobernu taldeak. Ondoko aldaketa hauek proposatu dira:

A) Irizpide orokor gisa izoztu egiten dira 2016 urteko udal tasa eta zergak ondorengo salbuespenak kontuan izanda:

- a) Lurren balio-gehitzearen gaineko karga %4, egungo tasa %6,66 igota.
- b) Eguzkitik datorren energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak jartzen dituzten ondasun higiezinetan, zergaren kuotan %25eko hobaria uztea.
- c) Etxeko eta industriako zaborretan %5eko igoera.
- d) Udal kirol instalazioetako zerbitzu eta tarifetan %5eko igoera.
- e) Udal herri bideen zoru, hegal eta zorupeen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tarifa %10 igotzea. F epigrafearen 2 puntua, honakoa:

“Mahaiak, mahai hankabakarrak, aulkiak, zoladurak, loreontziak, eguzkitakoak edo antzeko instalazioak”.

B) Tributuoak eta bestelako tokiko eskubide publikoko dirusarrerak kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko ordenantza orokorra txertatzea. Horren testua irizpen honen 4 eranskinean jasota dago.

C) Higiezin zergaren kuotaren hobaria %25, horren erabilera “Etxebizitza hutsen Programa”ren baitan lagatzea bada, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuak arautua. Ondasun Higiezin Zergaren 4 art.aren gainerako 4. Atala bere horretan uzten da.

D) Trakzio mekanikodun ibilgailuen zergaren tarifa aldatzen da 125 c.c. arteko ziklomotor eta motozikletetan. Prezioa 10,50€ ezartzen da.

E) Udal kiroldegia erabiltzeko abonuetan, irailetik aurrera egiten direnetan, erabiltzaile tarifari dagokion %50 ordainduko da.

F) Udal kirol instalazioak erabiltzeagatik kobratzen den tasaren zazpigarren aplikazio araua kentzea, tarifa-zerrendan jasota dagoelako.

G) Udal kirol instalazioak erabiltzeagatik kobratzen den tasaren bederatzigarren aplikazio-araua aldatzea: langabetuek Lanbideko txostena aurkeztu beharko dute dagozkion inskripzio aldiko datuekin.

H) Kirol ikastaroei dagokien tasaren lehen aplikazio araua aldatzea:

“Izen-ematea udal kiroldegiko bulegoetan egingo da bulego orduan eta inprimakia beteta. Ordainketa helbideratua izango da.”.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

I) Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu berezi edo erabilera pribatiboaren tasaren A epigrafearen (hesiak, aldamiok, eskora eta astoak) tarifetan aplikazio-arau berri bat sartzea:

“ Jabari publikoa erabiltzeagatik kobratzen den tasaren gutxieneko zenbatekoa, A epigrafea (hesi, aldamio, eskora eta astoak) 10,50€izango da”.

Kontuan izanda Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 legeak, 22.2.e), 49, 70.2 eta 111 art.etan eta Toki Araubidearen arloko Testu Bateginak 56 art.an xedaturikoa.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (6 BILDU eta 2 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENEA: Onartzea hasierako izaeraz eta 2016ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, honako zerga eta eranskin hauek: Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga , ondasun higiezinaren gaineko zerga eta lurren balio-gehitzearen gaineko zerga. Hori guztia erabaki honen azalpenean jasotakoaren arabera eta II Eranskinean ageri den moduan.

I ERANSKINA

1.- ZERGA

1.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

ERANSKINA

<i>Potentzia eta ibilgailu mota:</i>	<i>koefizientea</i>	<i>Kuota/Euro</i>
F) Beste ibilgailuak		
<i>Ziklomotoreak</i>	2,374616	10,50
<i>Motozikletak 125 c.c.raino</i>	2,374616	10,50

2.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK ZEHAZTEKO OINARRIZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.1 Udal ordenantzaren 4. art.aren 3 eta 4 atalak honela geratzen dira:

3. Higiezin zergaren kuota osoaren %25eko hobaria emango zaie eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak jarri dituztenei, baldin eta interesdunak martxoaren 1a baino lehen eskatu eta behar bezala justifikatzen badu. Hobari hau urtebetekoa izango da eta bere aplikazioak honako baldintza hau izango du: beroa produzitzeko instalazioak ez exijitzea DB_HE, Eraikuntzaren Kode Teknikoaren Oinarrizko Agirian eta administrazio eskudunaren homologazioa duten hodi biltzaileak izatea.

4. Zergaren kuota osoaren %25eko hobaria emango da Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuak araututako "Etxebizitza Hutsaren Egitasmoa"ren esparruan erabiltzeko laga diren ondasun higiezinatarako, baldin eta interesdunak ekitaldiko martxoaren 1a baino lehen eskatzen eta behar bezala ziurtatzen badu.

3. . LURSAILEN BALIO-GEHITZEARI BURUZKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

Karga mota %4 izango da.

BIGARRENA: Onartzea hasierako izaeraz eta 2016ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, honako zerga eta eranskin hauek: zerbitzu publikoak edo administrazio jarduerak burutzeagatik kobratzen den tasa arautzen duen ordenantza, eta bere eranskinak . Hori guztia erabaki honen azalpenean jasotakoaren arabera eta III Eranskinean ageri den moduan.

II ERANSKINA

2. UDALAREN ESKUMENENKO ZERBITZUAK EMATEAGATIKO EDO ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

2.1.- UDALAREN KIROL-INSTALAZIOAK

2.1.1.- KIROLDEGIA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

TARIFA	ZENBATEKOA
16 urtekoak edo 16 urtetik gorakoak	96,70€
16 urtetik beherakoak	28,89€
Familia abonua	134,09€
Langabeak	48,40€
Elbarriak	48,40€
Kirol elkarteko bazkideak	0,00€
65 urtetik gorakoak	48,40€
Gazte txartela	87,02€
<i>Irailetik aurrera izen ematea</i>	%50€

1.2. EGUNEROKO KUOTAK	
16 urtetik beherakoak	2,75€
16 urtekoak edo 16 urtetik gorakoak (1990)	6,05€
1.3. JOKALEKUA ALOKATZEA	
Ordubete edo ordu-zatikia, argi artifizialik gabe	17,60€
Ordubete edo ordu-zatikia, argi artifizialaz	25,30€
24 ordurako akura, kirol gertaera bat delako	398,13€

2.1.2 PILOTALEKUA ALOKATZEA

Ordubete edo ordu-zatikia, argi artifizialik gabe	4,40€
Ordubeterako argia	6,60 €
24 ordurako, kirol gertaera bat delako	398,13 €

Tarifak aplikatzeko arauak:

Lehen.- Urteko abonamenduen prezioak banku-helbideratze bidez kobratuko dira urtero.

Bigarrena.- Alokatzeko kuotak hileroko kobratuko dira, hilabete bakoitzeko lehenengo bost egunetan.

Hirugarrena.- 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera, Ibarra erroldan eskaera-eguna baino urtebete lehenagotik izena emanda dauden familia ugariak %50eko murrizketa aplikatuko zaie. Horretarako familia ugariaren txartela aurkeztu behar dute.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hobaria ezarri ahala izateko urtero aurkeztu beharko da familia ugariaren txartela, otsailean zehar.

Laugarrena.-Familia abonuko kuota urtero berrituko da eta horretarako egoitza ziurtagiria aurkeztu beharko da eta hala badagokio, Foru Ogasuneko errenta aitortpena. Familia abonuko titularrek, 18 urte azpiko seme-alabak dituztenak, eta Ibarran bizi direnak ez dute hori egin beharko.

Bosgarrena.- Abonatu batek baja eman nahi badu, idatziz eskatu beharko du, ekitaldi horretako urtarrilaren 15 baino lehen. Gainera, txartela itzuli beharko du.

Seigarrena.- Irailetik aurrera egiten diren abonu berriek %50eko hobaria izango dute.

Zazpigarrena.- Elbarritasuna dutenek horren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Zortzigarrena.- Langabeek Lanbide txartela aurkeztu beharko dute. dagokien izen-emate aldien txostenarekin batera.

Bederatzigarrena.- Zergadunarentzat tarifa onuragarriena ezarriko da.

2.2 ZABORRAK BILDU ETA DEUSEZTATZEKO ZERBITZUA

Tarifak

1.- Etxe-zaborrak

Etxebizitzak	104,90 €
Konposta komunitarioa:	78,75€
Autokonposta:	73,50€

2.- Lantegietako zaborrak

Lantegiak eta industriak 1.500 m2 arte	389,74€
--	---------



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Lantegiak eta industriak 1.501 eta 3000 m2 arte	481,05€
Lantegiak eta industriak 3001 m2 eta 5000 m2 arte	601,30€
Lantegiak eta industriak 5000 m2, baino handiagoak	721,56€

2.3 KIROL IKASTAROAK

Aplikazio arauak:

- 1.- Izen emateak udal kiroldegiko bulegoetan egingo dira, bulego orduetan eta inprimakia beteta. Ordianketak helbideratu egingo dira.
- 2.- Ikastaroak bederatzi(9) hilabetekoak dira. Urrian hasiko dira eta ekainean amaitu. Ordainketa, hiru hiletik behin egingo da. Izena ematen dutenak behartuta daude bukatu arte jarraitzera, eta ezingo dute baja eman inolako araziengatik.
- 3.- Matrikula itzultzerik ez da egingo, plaza ez badu beste pertsona batek betetzen. Behin ikastaroa hasita gero ez da dirurik itzuliko.
- 4.- Ikastaroa egin ahal izateko gutxieneko partaideak(8) behar dira ikastaro bakoitzean. Behin ikastaroa hasita izena ematen dutenek hilabete osoei dagokien proportzioan ordainduko dute.
- 5.- U.K.I ek eskubidea dute irakasleak aldatzeko arrazoi justifikagarriengatik. Inola ere ez da itzulketarik egingo monitoreo aldatzeagatik.
- 6.- Matrikula garaian egutegi bat emango da, ahalik eta zehatzena, ikastaroaren hasiera data, bukaera, jai egunak...azalduz.

HIRUGARRENA: Onartzea hasierako izaeraz eta 2016ko urtarrilaren leko ondorioekin, honako zerga eta eranskin hauek: jabari publikoaren aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboagatik ordaintzen den tasa eta bere eranskinak . Hori guztia erabaki honen azalpenean jasotakoaren arabera eta III Eranskinean ageri den moduan.

III ERANSKINA

USTIAPEN MOTA:

A IDAZPURUA:

HESIAK, ALDAMIOAK, ESKORAK ETA ASTOAK

Tarifa aplikatzeko arauak:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Lehen.- Idazpuru honetan aipatzen diren obrak inolako arrazoirik gabe bi hilabete baino gehiagoz eteten badira, tarifa hori ezartzetik ateratzen diren kopuruei hirugarren hilabetetik aurrera %100eko gainordaina ezarriko zaie, eta obrak amaitu ondoren ustiapenak jarritzen badu, kopuruei %200eko gainordaina ezarriko zaie.

Bigarrena.- Fatxadak entokatzeko edo luzitzeko obren ondorioz jarri behar diren hesiei eta aldamierei dagozkien tarifek %50eko murriztapena izango dute, hesiak eta aldamiok jarrita egoteko epea hiru hilabetetik gorakoa ez bada.

Hirugarrena.- Epigrafe honetako gutxieneko tasa 10,50€ izango da.

D” IDAZPURUA:

UDAL BIDE PUBLIKOETAKO ZORUAREN, HEGALKINEN ETA LURRAZPIAREN ERABILERA PRIBATIBOA EDO USTIAPEN BEREZIA

1.- Ondasunak edo zerbitzuak txanpon bidez automatikoki saltzeko aparatuak

- Unitateko eta hileko
3,60 €

2.- Mahaiak, mahaitxoak, aulkiak, zoladurak, loreontziak, eguzkitakoak edo antzeko instalazioak:

- 10 metro koadrora bitarte, urtean
60,09€
- 11-25 metro koadro bitartean.....
76,60€
- 25 metro koadro baino gehiago, urtean
116,16€

3.- Obra-hondakinak edo materialak uzteko edukiontzia:

- Unitateko eta eguneko edo egun-zatiko
...3,55€

4.- Establezimendu barnetik zuzenean kalera edozein motatako gaiak salduz zorua erabiltzea eta bide publikoa negozioaren zati gisara erabiltzea ¿urtean?.....73,17€

5.- Txosnak, karpak eta kale saltzaileak.....7,50€/m² egunean

6.- Kutzazain automatikoen bidez.....350,00€urtean

7.- Aurrekoetan barne hartu gabeko kasuetan, udalak zehaztuko du tasaren zenbatekoa, kasu bakoitzaren berezitasunak eta ezaugarriak kontuan hartuta.

LAUGARRENA:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Onartzea Tokiko zerga eta bestelako Zuzenbide Publikoko Dirusarrerren Kudeaketa, Dirubilketa eta Ikuskatzeari buruzko ordenantza orokorra. Erantsita dago irizpen honen IV Eranskinean.

BOSGARRENA:

Espedientea jendaurrean jartzea interesatuen entzunaldira hogeita hamar eguneko epean eta iragarki taulan nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ematea, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 16.1, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak 16.1 art.an xedaturikoari jarraiki interesdunek alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin betikotzat joko da aurreko zergen aldaketa.

BOSGARRENA

UDALBILTZA PARTZUERGOAN SARTZEKO PROPOSAMENAREN ONARPENA

Udalbiltza, Euskal Herriko udal eta udal hautetsien biltzarra da. 1999ko irailaren 18an sortu zen, Bilboko Euskalduna jauregian. Euskal Herriko lehen instituzio nazionala da eta Euskal Herriko udalerrien arteko harremanak sendotu eta interes komunak elkar bultzatzeko sortu da Udalbiltza Partzuergoa.

Ibarrako Udalak bat egiten du Udalbiltza Partzuergoaren helburuekin.

Udalbatzak, 6 aldeko botorekin (6 BILDU) eta 2 abstentziorekin (2 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Ibarrako Udala “Udalbiltza Partzuergoa” eta bere estatutuekin bat dator eta bertan kide bezala sartzeko eskatzen dio Partzuergo horren Kontseilu Nagusiari. Kide izateko beharrezko den izapideen berri ematea eskatzen zaio.

BIGARRENGOA: Ibarrako Udalak urtero Partzuergoko kide izateagatik ordaindu behar den urteko kuotaren ordainketa egiteko konpromisoa agertzen du.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Udalbiltza Partzuergoko Kontseilu Nagusiari.

LAUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari

SEIGARRENA

BILDU KOALIZIOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA MENDEBALDEKO SAHARAREN INGURUAN

Bildu Koalizioak honako mozioa aurkezten diote Udalbatzari, honek onar dezan:

MOZIOA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Estatu espainarrak duela 40 urte modu lotsagarrian utzi zuen Mendebaldeko Sahara, eta harrez gero, Marokoren okupaziopean deskolonizatu gabe jarraitzen duen lurralde ez-autonoma da.

Ordutik euskal herritarren artean beti egon da Mendebaldeko Saharekiko elkartasuna present. Deskolonizazio-kontuetan, Nazio Batumi eta bertako kideei dagokie erantzun Nagusia, Nazio Batuen Sortze Gutunaren arabera, eta erakunde horretako Segurtasun Kontseiluak du erantzukizunik handiena bidezko eta behin betiko konponbidea bilatzeko.

Ez da onargarria 40 urte pasa ondoren Mendebaldeko Saharak pairatzen duen okupazioa eta biolentzia Marokoren aldetik.

Ibarrako Udalak

1.- Espainiako Estatuko gobernuari eskatzen dio, De iure potentzia administratzailea den heinean, 1975az gero bukatu gabe dagoen deskolonizazio prozesuari amaiera emateko, Herri Sahararraren borondatearen adierazpen libre eta benetakoa ziurtatuko duen erreferenduma eginez.

2.- Espainiako Estatuko gobernuari eskatzen dio deskolonizazio eta Lurralde Ez Autonomoen kontuetan Nazio Batuek finkatutako doktrina babesteko, modu berezian autodeterminazioaren eskubidea.

3.- Estatu espainarrak parte hartzen duen Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluari eskatzen dio, bakea eta giza eskubideak babeste aldera, lurraldean Nazio Batuen presentzia bakarra duen MINURSOri kompetenziak esleitu diezaizkion, saharar populazioaren eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak babestu eta sustatu ahal izan ditzan.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio erakusketak, hitzaldiak eta beste motako ekitaldiak antolatu ditzala, okupazioaren 40. urteurrena gogoratzeko.

5.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Marokoko armadak estrajudizialki egindako exekuzioen inguruan Euskal Herriko Hegoa erakundea, Aranzadi eta EHUren artean egiten ari diren ikerketa babesten jarrai dezala.

6.- Espainiako Barne Ministeritzari eskatzen dio berraztertu dezala Hassana Aaliaren asilo politikoaren babes eskaera, 12/2009 Legean ezarritakoaren arabera, zeren eta bere herrialdera itzultzen bada ez delako bizi osoan kartzelatik aterako, kontuan izanda, zigor hori Saharar herriaren autodeterminazio eskubidearen aldeko pertsona aktiboa delako ezartzen zaiola.

7.- Akordio hau ondoko erakundeei bidaliko zaie: Espainiako Errege Etxea, Estatu Espainiarreko Gobernu, Kanpo harremanetarako Ministeritza, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan dagoen espainiar ordezkariari.

Alkateak hitza hartu eta mozio honetako 6.en puntuan egiten den eskaera zorionez bertan behera utz daitekeela adierazten du; 2015 eko urriaren 29ko Berría aldizkarian adierazten dena kontutan izanik. Bertan, Auzitegi Nazionalak berretsi egiten duela Aaliaren aurka abiatutako kanporatze txostena artxibatzeko betebeharra argitaratzen da. Ondorioz, mozio honetako 6.en puntua moziotik kanporatzen da.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (6 BILDU eta 2 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Bildu Koalizioak Udalbatzari aurkeztzen dion mozioa Mendebaldeko Sahararen ingurukoa



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENGOA: Ibarra Udalak Espainiako Estatuko gobernuari eskatzen dio, De iure potentzia administratzailea den heinean, 1975az gero bukatu gabe dagoen deskolonizazio prozesuari amaiera emateko, Herri Sahararraren borondatearen adierazpen libre eta benetako ziurtatuko duen erreferenduma eginez.

HIRUGARRENGOA: Ibarra Udalak Espainiako Estatuko gobernuari eskatzen dio deskolonizazio eta Lurralde Ez Autonomoen kontuetan Nazio Batuek finkatutako doktrina babesteko, modu berezian autodeterminazioaren eskubidea.

LAUGARRENGOA: Ibarra Udalak Estatu espainarrak parte hartzen duen Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluari eskatzen dio, bakea eta giza eskubideak babeste aldera, lurraldean Nazio Batuen presentzia bakarra duen MINURSOri konpetenziak esleitu diezaizkion, saharar populazioaren eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak babestu eta sustatu ahal izan ditzan.

BOSGARRENGOA: Ibarra Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio erakusketak, hitzaldiak eta beste motako ekitaldiak antolatu ditzala, okupazioaren 40. urteurrena gogoratzeko

SEIGARRENGOA: Ibarra Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Marokoko armadak estrajudizialki egindako exekuzioen inguruan Euskal Herriko Hegoa erakundea, Aranzadi eta EHUren artean egiten ari diren ikerketa babesten jarrai dezala.

ZAZPIGARRENGOA: Akordio hau ondoko erakundeei bidaliko zaie: Espainiako Errege Etxea, Estatu Espainiarreko Gobernua, Kanpo harremanetarako Ministeritza, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan dagoen espainiar ordezkariari

ZAZPIGARRENA:

BILDU KOALIZIOAK ETA EAJ ALDERDIAK AURKEZTURIKO MOZIOA AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN INGURUKOA.

Alkateak hitza hartu eta komentatzen du alderdi bakoitzak gai honen inguruan mozioa berdina aurkezten zutela nahiz eta desberdintasun txiki batzuk egon testu bat eta bestearen artean. Bestalde, Udaltzaria hasi aurretik bi alderdiek bat egin dute mozio testu bateratu bat aurkezteko. Ondorioz, eguneko zerrendako 7 eta 8.en puntuak bateratu eta soilik 7.en puntua bozkatuko da.

Bildu Koalizioak eta EAJ alderdiak honako mozioa aurkezten diote Udaltzariari, honek onar dezan:

MOZIOA

AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

Azaroaren 25a dela eta, data horixe izendatu baitu Nazio Batuen Erakundeak “Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna”, gure gaitzespenik irmoena



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

adierazi nahi dugu emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenekiko, zeinahi ere den (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai halaber sexismo-modu guztiekiko, barne daudelarik finenak eta normalizatuenak, hala nola sexuen arabeko rol estereotipatuak ezartzea edo bizitzaren esparru askotan emakumeak ikusgai ez egotea, besteak beste. Berretsi nahi dugu, era berean, arazo estruktural baten aurrean gaudela eta, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunik eza oinarri duenez, ezinbestekoa dela berdintasun-politikak baliatzea, adituek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezalaxe.

Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egituraren bertan oinarritzen da; izan ere, oraindik ere aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumezkoen eta gizonezkoen, eta oraindik ere jaiotza-sexuaren arabera pertsonen askatasuna mugatzen da. Saiatu behar dugu bestelako gizartea eraikitzen, non pertsona guztiek askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoz garatzeko, eta non giza eskubideei begira berdintasunezko eta begirunezko tratua jasoko duten.

Gure xedea da pertsona guztiekiko tratua onak bermatuko dituen gizarte batean bizitzea, urrats bat gehiago emango duen gizartea eta, emakumeenganako indarkeriaren aurka agertzearekin batera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde argiro azalduko den gizartea. Gure aldarrikapena da pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarrituko dituen gizartea. Errespetatzea ez da bakarrik ez erasotzea; aitzitik, berorren esanahia ere da pertsona bakoitzak, berdintasunik ezak dakarren mugarik gabe, bere bizitza-ibilbidea irudikatu ahal izateko bermea edukitzea.

Erakundeetatik geure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu, tratua onak sustatuko dituen gizartea eraikitzeke orduan, eta horretarako gure aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarrerak gure baitatik berrikusten hasi.

Hori dela eta, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, Euskal Herria feminista eta ekitatibo baten aldeko gure aldarrikapenak inoiz baino ozenago entzun behar dira, hori eraiki ezean ezinezkoa izango baitzaigu egiazko demokrazia erdiestea, honako konpromisoen bitartez:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Horregatik guztiagatik:

- 1.- Ibarra Udal honek, IBARRAn izan daitekeen emakumeen aurkako erasoak identifikatzeko, salatze, desagerrarazteko eta sortu aurretik aurreikusteko Bientzia Matxistaren aurkako Behatokia abian jarriko du, emakume eta talde feministekin elkarlanean.
- 2.- Ibarra Udal honek, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza enplazatzen ditu emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrekontu partidak handitu, berdintasun zuzendaritzak indartu, epaitegi-tako genero unitateak doitu eta legedia errebisatzeko konpromisoa hartzera.
- 3.- Ibarra Udal honek, enplazamendu zuzena egiten die hezkuntza eragileei lerro kurrikularretan genero berdintasuna landu dezaten.
- 4.- Halaber, herritarrak gonbidatzen ditugu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak har ditzaten, urteko egun guztietan, baita azaroaren 25a dela eta burutuko diren ekitaldietan parte har dezaten ere, bai halaber gazteen arteko prebentzio eta hezkuntzarako “Beldur Barik” ekimenean.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (6 BILDU eta 2 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Bildu Koalizioak eta EAJ alderdiak aurkezturiko mozioa Azaroaren 25eko Adierazpen Instituzionalaren ingurukoa

BIGARRENGOA: Ibarra Udal honek, Ibarra izan daitekeen emakumeen aurkako erasoak identifikatzeko, salatze, desagerrarazteko eta sortu aurretik aurreikusteko Bientzia Matxistaren aurkako Behatokia abian jarriko du, emakume eta talde feministekin elkarlanean.

HIRUGARRENGOA: Ibarra Udal honek, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza enplazatzen ditu emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrekontu partidak handitu, berdintasun zuzendaritzak indartu, epaitegi-tako genero unitateak doitu eta legedia errebisatzeko konpromisoa hartzera.

LAUGARRENGOA: Ibarra Udal honek, enplazamendu zuzena egiten die hezkuntza eragileei lerro kurrikularretan genero berdintasuna landu dezaten.

BOSGARRENGOA: Ibarra Udal honek, herritarrak gonbidatzen ditugu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak har ditzaten, urteko egun guztietan, baita azaroaren 25a dela eta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

burutuko diren ekitaldietan parte har dezaten ere, bai halaber gazteen arteko prebentzio eta hezkuntzarako “Beldur Barik” ekimenean

ZORTZIGARRENA:
GALDE-ERREGUAK:

Ez dago inolako galde-erregurik.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaituzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hamasei. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2015/10/29